

ERRESISTENTZIA ESPIRITUA EBEKO PROIEKTU POLITIKOAREN ARTIKULATZAILE GISA. JORGE SEMPRUNEN *LA ESCRITURA O LA VIDAREN ANALISI BAT*

Ana García Díaz

Universidad de Jordania

alpargata99@gmail.com


Aipatzeko gomendioa || GARCÍA DÍAZ, Ana (2011): "Erresistentzia espiritua EBeko proiektu politikoaren artikulatzaile gisa. Jorge Semprunen *La escritura o la vidaren analisi bat*" [artikulua linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 5, 53-69, [Kontsulta data: dd/mm/aa], < <http://www.452f.com/index.php/eu/ana-garcia-diaz.html> >

Ilustrazioa || Mireia Martín

Itzulpena || Teresa Pradera

Artikulua || Jasota | Argitaratuta: 07/2011

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honetan, Jorge Semprún-en obran igar daitekeen memoria eraikitze prozesua aztertzen da, bere *La escritura o la vida* eleberria oinarri hartuta. Europar Batasunaren forma politiko pean gorpuztutako europartasun sentimendu baten oinarri den talde nortasunaren eraikuntzarekin duen harremana arakutzen da. Gure artikulua helburua Semprúnek identifikazio hori gauzatzeko erabiltzen dituen estrategia literarioak argitara ateratzea da, eta, aldi berean, identifikazioaren inplikazio politikoaren azterketa kritikoa egitea.

Gako hitzak || Jorge Semprún | *La escritura o la vida* | talde memoria | europartasuna | erresistentzia | hurkoen komunitatea

Abstract || This piece of work analyses the process of memory construction in the work of Jorge Semprún, focusing in his novel *Literature or Life*. In this article, we explore the connection between the building of a collective identity that could be used as the basis of an European spirituality represented in the political project of the European Union. Our article tries to disclose the literary strategies that Semprún uses to establish this identification while proposes a critical analysis of its political implications.

Keywords || Jorge Semprún | *Literature or Life* | collective memory | european identity | resistance | affective community.

0. Sarrera

Aldizkari honen laugarren alean proposatu genuen literatura konparatuaren, memoriaren inguruko produktu kulturalen, eta horiek norbanakoaren eta taldearen nortasunaren eraikuntzan duten eraginaren arteko lotura aztertzea. Horren helburua literatura testutik ateratzeko eta errealitatearekin lotzeko gai den literatura konparatuaren ikuspegi jakin bat bultzatzea zen; baina ez soilik hura aztertzeko tresna izateko asmoz, baizik eta errealitate hori eraldatzeko abiapuntu izateko gogoz. Hainbat autorek luze eta zabal ikertu duten «lekukotza-literatura» izenekoaren (gure monografikoaren laugarren alean ere Jaume Peris (2005) edo Jose Colmeirok heldu zioten gaiari, besteak beste) arazo nagusia da lekukotza eta memoria «historia ofiziala» idazteko erabili, eta askotan baita zenbait jarrera edo erabaki politiko zurrizko bide ere izan direla. Memoria gehiegikeria¹ horiek konparatibistok jarrera kritiko bat hartzera behartzen gaituzte. Ondorioz, ez dugu soilik narratzeko moduari buruz hausnartu behar; narrazioak identitate eta talde memoria bat eraikitzeke orduan dituen inplikazioak eta gaur egungo munduan dituen inplikazio politikoak ere kontuan hartzekoak dira.

Ikuspuntu hori abiapuntutzat hartuz ekingo diogu Jorge Semprún, eta, zehatzago, *La escritura o la vida* eleberriaren azterketari. Autorearen idazkera konplexua, narrazio historiko-literarioaren prozesuaren beraren inguruan garatu dena, eta kontzentrazio esparruen oroitzapenen sorrera eta horrek europar nortasunaren eraikuntzan duen eragin zuzena lotzen dituen. Diskurtsoaren egituraketa prozesuan txertatzen da, literaturaren irismen politikoa teorikoki eta praktikoki aztertzeko proposatuz, eta, aldi berean, lekukotzak eleberriarekiko, autobiografiarekiko, Historiarekiko eta Memoriarekiko dituen mugak zalantzak jarritz. Horrela, *La escritura o la vida* obrak bere egitura narratibotik azaleratzen du norbanakoaren eta taldearen arteko elkarrizketa. Era berean, diskurtso politikoei subjektibotasuna eranstea aldarrikatzen du, horretarako *egia* historikoaren kontzeptua baztertuz, eta talde memoria dinamikoki eta eztabaidaren bidez eraikitzea hobetsiz. Hala, talde bizipen bat hausnarketarako abiapuntu harturik, Semprún, norbanakoaren eta komunitatearen arteko loturaren adibide den lekukotza bat sortzen du. Honako bi kontzeptu hauek fusionatzen ditu testuan: «hurkoen komunitate»² deritzon kontzeptua (Halbwachs, 2005), zeinen mugak etengabe zabaldu nahi dituen literatura sortzeari jarraituz; eta «europartasun sentimendua», Edmund Husserl-ek 1935an ikertu zuena (Husserl, 1990)³. Bi kontzeptu horiek batuz, Semprún obrak «talde memoria» baten eraikuntza prozesuaren parte izan nahi du. Era berean, espazioari eta denborari esanahi berria ematea proposatzen du, Europak esperientzia traumatiko hori atzean utz dezan eta Husserlek proposatutako nazioez gaindiko

OHARRAK

1 | Ikus Todorov (2000).

2 | Eleberriak Europako humanismoarekin eta idealismoarekin jarraitzeko beharra aldarrikatzen du, eta horiek Europa politikoki egituratzeko lanetan erabili nahi ditu. Horren harira, Maurice Halbwachs presentziak (lekuko funtzio argia ere badauka presentzia horrek) balio ideologiko garrantzitsua hartzen du. Izan ere, pertsonaia hori eleberriaren (eta oroitzapenaren) narrazioaren ardatza izateaz gain, literatura lana bera eta diskurtsoaren proposamenak teorikoki azaltzen ditu. Maurice Halbwachsek bere *Memoria colectiva* (2004) lanean argi azaltzen du bizipenaren eta talde esperientziaren arteko harremana oroitzapena eratzeke. Halbwachs azterketen arabera, memoria prozesu dinamikoa da, non subjektuaren eta taldearen arteko harremanak etengabe esanahi eta gorputz berria ematen dien oroitzapenei. Beraz, oroitzapena gogora ekartzeko hurkoaren beharra dugun era berean, memoria eraikitzeke oroitzapenarekin sentimendu bidezko lotura behar dugu, eta lotura hori izango da «hurkoen komunitatea» josiko duena, talde memoria horren esanahia etengabe aldatuz eta berreraikiz, hau da, gaur egunera ekarriko duena. Norbanakoaren memoriak eta talde memoriak bat egin dezaketeneko puntua «pentsamenduaren korrantea» izan daiteke. «Pentsamenduaren korrantea» hurkoen komunitate bat eraikiz transmiti daiteke belaunaldi batetik hurrerora, eta historiaren momentu batzuetan besteetan baino indar handiagoa eduki arren, beti izango da memoria eraikitzeke prozesuaren parte (Halbwachs, 2004: 66).

proiektu politikoaren parte izan dadin (Europar Batasunaren Europa demokratikoa izango litzateke proiektuaren isla).

Gorago aurkeztutako printzipioetatik abiatuz, artikulu honetan bi helburu ditugu: alde batetik, lotura horiek eratzeko Semprúnek erabiltzen dituen tresnak aztertzea; eta bestetik, eraikuntza horren inplikazio politikoak kritikoki analizatzea.

1. Testigantza, jardun politiko gisa: Europar Batasunaren proiektu politikoaren aldarrikapena

Beraz, Semprúnek 1995an -Berlineko harresia erori eta sei urtera, Alemania europar komunitateari ireki zitzaionean- idatzitako testigantza Europaren egitura politikoaren defentsa ideologikoa da, esperientzia gainditzearen eta europarren anaitasunaren sinbolo. Izan ere, Semprúnek onartzen duen legez, Europar Batasuna Husserlek aldarrikatzen duen «europartasun sentimendu» horren garaipenaren isla da.

Algunos, posteriormente, comparando la época con esa utopía racional supranacional de una Europa inspirada por la razón y por el espíritu crítico, han puesto en evidencia el carácter aparentemente irrisorio de ese racionalismo abstracto y utópico, retórico. Y, sin embargo, esa razón democrática ha triunfado, y en la Europa actual, al margen de todos los problemas a los que han aludido quienes me han precedido, todos los problemas de la virulencia de los nacionalismos y de la disgregación de los imperios, resulta evidente que la idea capital que el anciano filósofo expresaba patéticamente en 1935 en Viena ha cobrado forma y ha cobrado cuerpo (Semprún, 2006: 261).

Hala, Semprúnen eleberria Europa modernoaren baieztapena da, anaitasunean eta humanismoaren baloreetan eraikitako, eta erresistentziaren espirituz betetako Europarena. Eleberriak *hurkoen komunitate* hori aldarrikatu eta haren mugak zabaldu nahi ditu Europak berezko duen *pentsamenduaren korronte* baten inguruan. Beraz, *talde memoria* europar bat sortzeko elkarlana dago, eta lan horretan eremuetako esperientziak esanahi berria hartuko luke, EB-a garai historiko hori gainditzearen eta ontologia europarraren emaitza gisa agertu araziz. Hori dela eta, bereziki interesgarria iruditzen zaigu *La escritura o la vida* lanaren azterketa egitea, gaur egun eraikitzen ari garen proiektu politiko europarra ikertzeko.

1.1 Europar imajinario komuna eraikitzea.

Eleberrian zehar, baliabide literarioek bi oinarrizko estrategia eraikitzeko balio dute: esperientziari esanahi berria emateko, eta oroitzapen mitiko bat eraikitzeko. Bi ideia horiek Europaren gaur egungo egoera politikoaren ikuspegi bat islatuko dute, eta, aldi berean, mito eta imajinario komun bat eraikiko dute, europartasun

OHARRAK

3 | *La crisi de la humanidad europea* saiakeran, Edmund Husserlek Europaren denbora eta espazio bidegurutzeari buruz hitz egiten zuen, nazioez gaindiko Europa bat eraikitzeko proiektua martxan jartzeko unea baitzen (Husserl, 1990: 332), edo, ez aprobetxatzekotan, totalitarismoei men egin beharko zitzaien, eta europarrak elkarrengandik urrunduko ziren. Husserlen hitzetan, Europa batzea posible zen herrialdeen arteko anaitasunari esker; tradizio historiko, filosofiko eta kultural komuna baitzuten, europartasun sentimenduaren oinarri (Husserl, 1990: 329). Hala, Husserlek idealetan oinarritutako tradizioa eraikitzen du, eta arrazoimen ilustratuaren printzipioak sentimendu horren oinarri teorikoa izango dira. Semprúnek berak ere ideia hori aldarrikatuko du hainbat saiakeratan (Semprún, 2006), eta eleberrian «pentsamenduaren korronte» gisa aurkeztuko du, zein, lekukotzarekin batera, berriro ere Europar Batasuna eraikitzeko elementu izango baita.

sentimendua gorpuzteko balioko duen hurkoen komunitate hori sortzeko estrategia bilakatuz. Eleberri honen bitartez, Semprúnek bere fikziozko *alter ego*-aren bizitza, errealtate historikoa eta Europako tradizio kulturala teilakatzen ditu. Hala, «mito edo alegoria historikoen tradizio erreferentzial» (Semprún, 2007: 198) bat sortzen laguntzen du, horren bidez Buchenwald kontzentrazio esparrua irudikatu ahal izateko. Semprúnen narrazio estrategiaren helburua da irudikatze horri erreferentziak ematea irakurlearen eta erresistentziaren kontzeptuaren artean lotura afektiboa sor dezaten. Era horretan, irakurleak bere burua komunitate transhistoriko⁴ baten parte bihurtuko den elementu gisa identifikatuko du.

1.2 Generoa, europar imajinarioaren eraikitzaile

Lehenik eta behin, beharrezkoa iruditzen zait autoreak esperientzia irudikatzeko erabili nahi izan duen generoari buruzko gogoeta egitea. Ondorioz, bereziki garrantzitsua da autoreak berak fikzioan eraiki duen ni eraldatu hori («Nire bizipenaz elikatu den “ni” bat behar dut narrazioan, baina bizipen horretatik haraindi joan dena; asmakeriak, fikzioa txertatzeko gai dena» (Semprún, 1995: 181)). Ni horrek bi ahots izango ditu; alde batetik behin eta berriro azpimarratuko du historiako gertakari bati buruzko lekukotza emateko asmoa, baina aldi berean narrazioa dela onartuko du. Bi ahotsetan zatitze horrek Maurice Halbwachsen memoria autobiografikoa eraikitzeari buruzko interpretazioa islatzen du: «”ni”-a eta haren iraupena bi serie ezberdin eta askotan dibergentetan kokatzen dira: oroitzapenen alderdi bizi eta materialekin loturikoa, eta iraganaren parte dena, baina berreraikitzen ez duena» (Duvignaud, 2005: 12).

Idazleak eraikitako ahots narratibo hori, beraz, gertaeraren berehalakotasunaren (orainaldiaren erabileraren bidez lotura afektibo nabarmenagoa islatzen duena) eta denbora/afektibitate tarte handiago baten (iraganaren erabileraren bidez) artean mugitzen da. Literatura estrategia hori Faulknerren narratibarekin loturik dago, nobelan aipatzen den moduan, non «memoria den garrantzitsuena, kontakizunaren ardatz den ekintza gidatzen duena, aurrera eginarazten duena...» (Semprún, 2007:182), eta horri bizipenaz haraindi doan hizkuntza estilizatua gehitzen zaio, oroitzapenaren berregitea berresten duena.

Hala, Semprúnek literaturaren bidez Halbwachsen teoria soziologikoa artikulatzen du, hau da, «gertaera batek ez duela historian bere lekua hartzen gertatu eta handik denbora tarte bat igaro arte» (Halbwachs, 2005: 55). Helburu horrekin, Semprúnek narratzaile bat eraikitzen du, egi itxura ematen dioten elementuz betetako narrazio batetik abiatzen dena (etengabe agertzen dira izaera historikodun datak eta informazio autobiografikoa, eta benetako pertsonaiekin jolasten

OHARRAK

4 | Puntu horretan, Semprúnen estrategia bat dator Hardtek eta Negrik esandakoarekin, hau da, erresistentziaren mitoa eraikitzea *jendetzak* elementu politiko gisa duen antolatze gaitasunaren isla dela, eta, aldi berean, beharrezko estrategia dela bere burua igartzeko gai izan dadin (Hardt eta Negri, 2005: 430).

du) istorioari kutsu *objektiboa* emateko; baina aldi beran, esplizituki berreraikitzen du oroitzapena, eta bizipenari esanahi berria ematen dio, irakurleari lekukotzaren «egiazkotasuna» zalantzan jarri arazten dion estrategia erretoriko baten bidez. Bi ahots horiek aurrez aurre egoteak bizipen historiko eta ontologikoa gainditu direla ulertzera eman dezake, eta idazlanaren egitura narratiboak gainditzearen ideia hori indartzen du. Beraz, azkeneko kapituluan, subjektu-autorea bera kontzentrazio esparruetako bizipena gainditzearen sinbolo bilakatzen da (Buchenwaldetik bueltatzen delako, baina baita narrazioa amaitzen delako ere), eta belaunaldi berriak (hau da, Semprúnen bilobak eta Cohn-Bendit) testigantzaren hartzaille gisa altxatzen dira, humanismoaren tradizioan eta erresistentzian oinarritutako Europaren etorkizun politikoaren jarraipena dira, eta aldi berean, irakurlea bera bezala, Europako mitoen unibertsoaren parte ere bai.

Bide horretatik, ahots narratiboak bizipena ulertzeko duen moduak Semprúnek gaur egungo Europari buruz duen ikuspegiaren, eta Europar Batasunaren funtsezko osagaiaren isla izan nahi du. Aldi berean, ambiguitasun generiko horrek gertaeraren eta narrazioaren subjektibotasuna azpimarratzen du. Ondorioz, *La escritura o la vida* lanak argiro aurkezten du Historiarekin loturik dagoen bitasun hori, eta, bidenabar, «memoria autobiografikoaren» eta «memoria historikoaren» etengabeko elkarrizketaren bitartez «talde memoria» sortzeko jardunaren adibide da (Halbwachs, 2005: 53). Beraz, Semprúnen testigantzak ez du *egi* historikorik eraiki nahi, sentimendu komunenguan altxatzen den mitoen imajinarioa eraikiko duen memoria proiektu bat baizik.

1.3. Data, Europako mitoen imajinarioaren muga zehazteko elementu

Imajinario hori eraikitzeke lehenengo urratsa oroitzapena denboran kokatzea da. Prozesu horretan, «datak» garrantzia berezia bereganatzen du Semprúnen eleberrian. Izan ere, dataren erabilera horrek, gorago aipatu dugunez, istorioari egiazkotasuna emateko estrategia gisa funtzionatzen du. Bestalde, tresna erretorikoa ere bada, posible egiten baitu irakurlea denentzako ezaguna eta komuna den historiako momentu zehatz batean kokatzea. Hala, data giltzarria da bizipena eta esperientzia diskurtso historikoaren barnean kokatuko dituen eta talde memoria eta memoria autobiografikoa artikulatuko dituen denborazkotasun bat sortzeko. Gauzak horrela, nobelan aurkezten zaigun «ni» horren biografiak narrazioa denboran mugatzen du, eta, ondorioz, daten balioari esanahi berria ematen dio (esate baterako, apirila ez da bakarrik Buchenwald askatu zuteneko hilabetearekin lotuko, Espainiaren II. Errepublikaren aldarrikapenarekin ere lotuko da), eta aldi berean gertaera kolektiboak

sentimenduekin loturiko datekin erkatuko ditu, humanismoaren inguruan sinboloen imaginario europar hori eraikitzeko. Bide beretik, bai bere literatura lanetan eta bai bere saiakeretan, Semprúnek proposatzen duen gertakarien eraikuntza mitikoan Elias Canettiren figura Blochekin lot daiteke (Canetti hitzaldi bat ematen ari baitzen zen bigarrena jaio zen egunean bertan), edo Baudelaire Halbachsekin, Semprúnen nobelako ordezkorekin, Buchemwaldekin eta Madrileko Batailarekin (Semprún eta Halbachs Baudelaireren poema bati buruz hizketan ari ziren haien kamainetan Madrileko Bataila hasi zen egunaren urteurrenean). Hala, memoriaren⁶ lotura prozesuen bitartez, denboran mugarri mitiko bat eraikitzen ari gara, amorerik ematen ez duen humanismo europarrak berezko duena, non Historia gertaerarekin berdintzen den, eta autoreak bere lana gehitzen dion.

1.4. Esparrua jatorri

Halbwachsek azpimarratzen duen moduan, oroitzapena gertaera sozial batzuek inguratzen dutela denboran kokatzen den era berean, espazioa ere *hurkoen komunitate* bat sortzeko funtsezko elementua bilakatuko da. Hala, «taldeak egiten duen guztia espazioan koka daiteke, eta betetzen duen lekua elementu guztien batuketa baino ez da» (Halbwachs, 2005: 133). Haatik, kontzentrazio esparrua bidegurutze espazial baten gisan altxatzen da, eta bertan biltzen da Goethek eta Eckermannek bi mende lehenago izan zituzten elkarrizketetan, esparruko komunitetan edo Maurice Halbwachsen kamainaren inguruan gogora ekartzen zituzten poeta, musikari eta filosofo europarren ideietan nahiz klandestinitatean egindako erresistentzia ekintzetan gorpuzten den europako tradizio idealista guztia. Espazioari esanahi berria emateak (Faulknerren estiloko egitura narratiboaren laguntzaz) eta denboran eteten ez den jarraipen bat eraikitzeak, *talde memoria* eraikitzeko balioko du, non kontzentrazio esparruak aberriarekin lotuko dugun jatorrizko espazio mitiko horren barruan egongo diren. Era horretan, Buchenwaldeko eremua (Weimarretik, Alemaniako Errepublika Demokratikoaren agintaritzaren totalitarioaren pean kontzentrazio esparrua ere izan zen Europako humanismoaren erdigune sinbolikotik, oso hurbil (Semprún, 1994:12)) erdigune sinboliko bihurtuko da, bertatik Europa demokratikoki berreraikitzeko proposatzeko. Europa berri horren zentroa bat egindako Alemania izan beharko litzateke, hura baita Europako bi erregimen totalitarioak jasan zituen herrialde europar bakarra. Semprúnen hitzetan,

Mi propósito consiste en afirmar que las mismas experiencias políticas que hacen que la historia de Alemania sea una historia trágica, también pueden permitirle situarse en la vanguardia de una expansión democrática

OHARRAK

6 | Lotura prozesu hori gogora ekartzea eraikitzeko tresna bat da lan osoan zehar, Soto Fernándezek dioen moduan: «lotura prozesu horren arabera, kolore zuriak pagondoa maiatzaren 1ean Parisen egon zen elurtearekin lotzen du, askatzaileak eta erbesteratuak kaleetan zehar zebiltzala; eta irudi horrek beste bat gogorarazten digu, Ascona elurtuarena, bere asmo literarioak bertan behera gelditzea eragingo duen irudi hilgarria. Elurraren ametsa hamabost urte beranduago itzuli zen, 1962an, Concepción Bahamonden preso zegoela, kide bati Mathausenen bizitakoei buruzko istorioak entzutean memoria berreskuratu zuenean; horrek gogoratzeari zion beldurra galdu arazi zion, eta "idatziz heriotzari aurre egiteko" prestatu zuen. Elkarri loturiko irudien kateari efemerideen sinbolismoa gehitzen zaio: 1964eko maiatzaren 1ean, elurra alemaniar esparruetatik atera berri zirenen gainera erori zeneko Pariseko desfilea baino bederatzi urte beranduago, berriro ere agertzen zaigu zuriz jantzitako mamu hori *El Largo viaje* lanean, zein Carlos Barralek eleberriaren edizio espainiarra ordezkatzeko erabiliko duen, zentsura zela eta ezin izan baitzen Salzburgoko Formentor Sarirako argitaratu. Idazle hasiberriak edukirik gabeko maketa huts hartan bere esperientzia behin eta berriz berritzeko lan amaigabea interpretatu zuen» (Soto Fernández, 1996: 184).

y universalista de la idea de Europa. Y el emplazamiento de Weimar podría convertirse en el lugar simbólico de memoria y de futuro (2007: 326).

Horrela, esparrua bizipenaren ordenamendu gisa aurkezten da, eta gainerako elementu mitikoekin nahasten da hurkoen komunitate bat sortzeko, europar guztiek talde memoria komun bat izatea ahalbidetuko duena. Ideia hori ardatz hartuta, Semprúnek memoriaren eraikuntza prozesuan nazioen arteko desberdintasunak atzean uztea proposatzen du.

Beraz, Semprúnek Frankfurten Nobel Saria jasotzean eman zuen hitzaldian esan bezala, mintzaira da espirtu humanistaren benetako aberria:

A fin de cuentas mi patria no es la lengua, ni la española ni la francesa: mi patria es el lenguaje. O sea, un espacio de comunicación social, de invención lingüística; una posibilidad de representación del universo, de modificarlo también, aunque sea mínima o marginalmente, por el lenguaje mismo (Semprún, 2004: 16).

Politika kontuak gainditzearen ideia hori «nazioez gaindiko literatura» bat sortzeko nahiean islatuko da, zeinek mugak hautsiko dituen César Vallejo bezalako autoreak barnean hartuz (Husserlek proposatutakoarekin bat egiten du horrek, hau da, *europar sentimenduak* Europako muga geografikoak gainditzen dituela)⁷. Bestalde, tradizio judutar-alemaniarrarekin zerikusia duten autoreak (Freud, Halbwachs, Levinas, Benjamin, Adorno edo Celan) kontutan hartzea nazismoak ezabatu nahi izan zuen tradizio bat berreskuratzeko estrategia bat da, tradizio horren falta, «gaur egun Europaren eraikuntzak dituen hutsune handietako bat baita», Semprúnen hitzetan (2006: 278).

1.5 Erresistentziaren memoria: erresistentziaren etika bat eraikitzea

Ikusi dugunez, Semprúnek proposatzen duen komunitatearen ideiak lotura estua du Husserlek aldarrikatzen dituen kontzeptu humanistekin. Baina ez hori bakarrik, Semprúnen lanak komunitate hori erresistentziaren inguruan antolatzen du. Hala, *La escritura o la vida* eleberriak esanahi berria hartu duen eta gainditua izan den bizipen bat berreskuratu nahi du, haren bitartez esparruei buruzko oroitzapen bat baino zerbait gehiago eraikitzeko: erresistentziaren memoria. Kontzeptu hori gorpuzteko, hainbat egoera biografiko eta kolektibo erabiliko ditu autoreak, eta amaieran zenbait gertaera historiko (Espainiako Gerra Zibila, Frantziako Erresistentzia, alemaniako kontzentrazio esparruak edo 77 Karta mugimendu demokratikoa), pertsonaia eta bizipen biografiko (eleberriko Semprún bera Leon Blumekin, César Vallejorekin edo Paul Celanekin) lotuko ditu Europaren etorkizunaren oinarrietako bat bilakatzea

OHARRAK

7 | «Ingelesen *menpeko lurraldeak*, Estatu Batuak etab. Europarenak dira argi eta garbi, zentzu espiritualean» (Husserl, 1990: 328)

proposatzeraino, eta Husserlek aldarrikatzen duen *europartasun sentimenduarekin* bat egiteko.

Hain zuzen, bizitako esperientziari esanahi berria ematea eta esparruak erresistentzia gune gisa identifikatzea eleberriaren funtsezko helburuak dira, eta horretarako hainbat literatura estrategia erabiltzen dira; bai egiturarekin zerikusia daukatenak (eleberri hasieran «presoak» esparruaren askatzailetzat aurkezten dira), bai estiloarekin zerikusia daukatenak («erresistentzia» hitza bera behin baino gehiagotan agertzen da kontzentrazio esparruarekin lotuta, eta mintzaira esperientziaz haraindi joateko tresna gisa azaltzen da), eta bai sinboloekin zerikusia daukatenak (espazioari eta denborari esanahi berria ematen zaie, eta horretarako idazkera erresistentzia mota bat bezala erabiltzen da).

Beraz, Semprúnek memoriari buruz egiten duen proposamenak erresistentziaren ahotsa historiaren eraikuntzaren parte bihurtzen du, ordura arte baztertuta egona baitzen. Horrela, marko mitiko bat eraikitzen du, eta haren bitartez erresistentzia mugimendu guztiek bat egiten dute subjektuaren motore etikoa eraikitzeko eta politikaren bidez gizarteratzeko. Are gehiago, erresistentziaren kontzeptua europartasun sentimendura, hau da, EBa osatzen duen funts ideologikora gehitzeak inpliketzen du Europaren eraikuntza politikoa erresistentzia gune bezala ulertzea, helburu humanista europarren asmo gorena.

1.6 Mintzaira, erresistentziarako tresna

Arreta berezia merezi du mintzaira erresistentziarako tresna delako aldarrikapenak. Gorago ikusi dugunez, Jorge Semprúnen eleberrian mintzaira oinarritzko elementua da esanahiak sortzeko. Hala, esperientzia gainditzeko ahalmena haren sublimazioaren bidez lortzen da, tresna literario bihurtzen denean, edo, Semilla Duránek dioen legez, subjektuaren gorputza eta memoria idazkeraren gorputz eta memoriara *isurtzen denean*⁸. Tranbiatik «erori» eta konortea galtzen duenean islatzen den moduan, soilik mintzairaren bitartez sor daiteke objektuekiko logika bat, eta ondorioz «ni» bat eduki. Eta badirudi hori dela Jorge Semprúnen helburua eleberri guztian zehar: kontzentrazio esparruetako errealitatea irudikatzea, mintzairaren bidez memoria eraldatzeko nahia oinarri duena, eta aldi berean norbanakoaren eta taldearen identitatea (europarra) bereganatzea. Gauzak horrela, mintzaira erresistentzia posible egiten duen tresna bilakatzen da, errealitatearen eta subjektuen ordena mitiko bat eraikitzen baitu.

OHARRAK

8 | Ikus Semilla-Durán (2004 eta 2005).

1.7 Europako *gizaki berria*

Izan ere, Plak aipatzen duen moduan, Semprúnek bere literatura lanean garatzen duen mitifikazio prozesu autobiografikoa abiapuntu hartuta, Buchenwald bera ere subjektuen mitifikazioaren jatorri bihurtzen da (Pla, 2004: 54). Era horretan, Semprúnen eleberririk irakurlea Europako hiritar berri horren eraikuntzaren partaide izatea nahi du, *eredu* izango diren pertsonaiak berreskuratuz. Figura horiek Semprúnen eleberrietan nahiz saiakeretan agertzen dira (Semprúnen eleberriko ordezkoa, Maurice Halbwachs, edo Jean Patocka, Husserlen proposamenaren ondorengo (eta martiri) politikoa), eta Europako sakabanatzeari aurre egin diezaioketen «arrazoimenaren heroiak» ordezkatzeko dituzte (Semprún, 2006: 279). *La escritura o la vida* eleberrian, beraz, irakurleak bizipenaren estiluzio bat aurkituko du, pertsonaiei nortasun heroiko eta tragikoa emanez esparruaren mito komuna eraikitzen laguntzen duena («Guk, hiltzera gindoazen guztiok, askatasunari genion maitasuna zela eta impositu ziguten heriotzaren anaitasuna bizitzea erabaki genuen» Semprún, 2007: 37)). Heriotza erakusten duenean soilik saihesten du Semprúnek mitifikazioa: Halbwachsen eta Moralesen disenteriak eragindako heriotza patetikoak aurrez aurre jartzen dira haien bizitzak deskribatzean ikus daitekeen kemenarekin, eta hala hildakoen inguruko nahia eta anaitasuna, nola azken igurtzia diruditen Baudelaireren eta Vallejoren poemak baino ez dira gai heriotz erdiragarri horiek gainditzeko.

Hala, zentzuaren eraikuntzan, oroitzapena gainditzeko esanahi berria sortzearen estrategiaren ondorio nagusietako bat gizaki europarraren proposamena da. Europar horrek anaitasunean, humanismoan eta erresistentzian sinestuko du, eta harentzat bizipena gizaki oso izatera heltzeko oztopoa baino ez da (edo, hobeto esanda, beharra). Bide horretan, Husserlen proposamenak (garai hartako pentsamolde abangoardista eta modernistarekin oso bat zetorrenak) lotu egiten ditu europartasun sentimenduaren (eta horri jarraiki komunitateak sortzen dituen elementuen) eraikuntza eta Grezia klasikoan sortu zen *gizaki berriaren* kontzeptua, *ideiaren* bidez gizadia garaikidea *progresiboki* eraikiko lukeena (Husserl, 1990: 332). Semprúnen eleberriko bere ordezkoa bi ahotsetan bikoizteak eta mintzairaren bidez bizipena gainditzeak (hori da erresistentziaren tresna garrantzitsuenetariko bat) posible egiten du kontzentrazio esparruetatik sortu den Europako hiritar berria deskribatzea.

1.8 Nazioez gaindiko Europaren patu komuna

Bizipenak norbanakoa aldatzeko eta biziberritzeko balio duen era berean, esparruetako esperientzia sistema politiko demokratikoa

eraikitzeko pauso bat ere bada. Bide horretan, Semprúnek Buchenwaldera bueltatu zenekoa Alemaniaren bateratzearekin lotzen du; era horretan, norbanakoak bere burua gainditzeko prozesua Europaren berreraikitze prozesuarekin berdintzen du. Hala, Husserlen hitzaldiak behin-betiko lotzen ditu nazioez gaindiko Europa baten ideia eta garapen ontologikoaren eta historikoaren kontzeptua. Hitzaldi horretan, Darwinen terminologia erabiltzen du erakunde politikoei buruz hitz egiteko –horren adibide da Europako krisiari buruz hitz egitean «Europaren gaixotasuna» esapidea erabiltzea (Husserl, 1990: 326)- eta komunitate gisa antolatzeko era desberdinetan islatzen den moralki eta politikoki gainditzeko nahiaren ideia eraikitzen du.

Labur esanda, Jorge Semprúnen proposamen literarioak lekukotzari esanahi berria ematen dio, testuaren tresna bihurtu eta jardun politiko berri baten subjektu izateko. Era horretan, lekukotzak *egia* bat impositzeko nahiari ihes egiten dio, kontrako bidetik joan eta subjektibotasunak azaleratuz talde memoria bat eraikitzeko tresna aktibo bilakatuz. Beraz, Semprúnen helburua gogoratzeaz haratago joatea da, esparruan bizitako esperientziari esanahi berria emateko, hala espazioan eta denboran nola politikan. Helburu horrekin, *La escritura o la vida* lanak imajinario mitiko bat sortzen du, hurkoarenganako lotura komuna sortzeko gai dena, literatura eta esperientzia teilakatzen dituena eta Husserlek proposatutako «europartasun sentimenduaren» kontzeptua biltzen duena. Autoreak aldarrikatzen duen legez, sentimendu hori haien baitan hartzen duten tradizio humanistaren balioek (Semprúnek *erresistentzia* printzipioa gehitzen die balio horiei) historian eta ontologian aurrerapausoak eman behar direlako ustean oinarritzen den eta Europar Batasunaren ideian gorpuzten den nazioez gaindiko proiektu politiko eta demokratiko bat sor dezakeen pentsamenduaren korrante bat eratu dute. Semprúnen lekukotzak Europako hurkoen komunitate horren eraikuntzan parte hartu nahi du mugak zabalduz, eta zabaltze hori europartasun sentimenduaren balioen aldarrikapenaren eta EBean babesten den Europa politikoki berreraikitzeko prozesuaren esperientzia demokratikoaren isla dira.

2. *La escritura o la vida* lanaren analisiaren hedapen politiko eta metodologikoa

Jada azaldu dugunez, Semprúnen proposamen etiko-politikoak bizipena gaur egunera ekarri nahi du irakurlea hurkoen komunitate baten parte bihurtuz; komunitateak europarren arteko gatazkak gainditzeko anaitasun sentimendu bat sortzea ahalbidetuko duten eta EBak ordezkaturako nazioez gaindiko Europa bat ekarriko duten oinarritzko balio komun batzuk izango ditu. Horri ekinez, eleberriak proposatzen duen bizipena aztertzeko moduak kategoria politikoa

emango lioke esperientziari, eta, aldi berean, berriro jarriko luke mahai gainean European nahiko ahaztuta zegoen arazo bat, zein, hainbat autorek⁹ jada ohartarazi duten moduan, Estatu Batuetara eramaten ari den. Ezbairik gabe, *La escritura o la vida* diskurtso filosofoaz haraindi doa, bildu egiten baititu (edo hobe esanda, hain estu lotzen ditu ezen ezin baitira bata bestea gabe existitu) erresistentzia intelektuala (modernitatearen, subjektibotasunaren balioen eta norbanakoaren berezko elementuak biltzen dituzten proposamenetatik abiatuz) eta testuaren bidezko erresistentzia aktiboa¹⁰ egiteko proposamena. Horren harira, oso interesgarria deritzogu lekukotza bera praxis bihurtzearen proposamenari, era horretan idazkerak ekintza teoriko-diskurtsiboa berretsiko baitu, baina espirituaz haraindi joatearen helburua ahaztu gabe. Are gehiago, bereziki interesgarria iruditzen zaigu mito komun batzuk eraikitzeke estrategia (nahiz eta politika¹¹ arloan gatazkak sor ditzakeen), erresistentziaren ideia gaur egunera ekarri nahi duena eta mito horien irudikapen ezberdinak mintzaira komun baten bidez bateratu nahi dituen (hori da ikerketaren helburua, Hardten eta Negriren arabera (2005: 76)). Dena dela, gure ustez *La escritura o la vida* lanak bizipenari buruz egiten duen irakurketak ez digu uzten gaur egungo Europako egoera politikoa aztertzen, eta memoria paralizatzen laguntzen du. Beraz, interesgarri iritzi diogu Semprúnen proposamenaren hedapen politiko eta metodologikoa aztertzen saiatzeari.

Hasteko, autore batzuek zalantzan jarri dute Halbwachek proposatzen dituen memoria eraikitzeke mekanismoen eraginkortasuna (Huysen, 2002: 23), mekanismo horiek orotzitzapenak egonkorak direla proposatzen dutelako, eta, beraz, ez omen dituztelako globalizazioak giza harremanetan, denboran, espazioan eta informazioan eragin dituen aldaketak kontutan hartzen. Hala, Semprúnen proposamena ez da eraginkorra, diskurtsoa egituratzerakoan ez baitu testuinguru historiko-politikoa kontuan hartzen.

2.1 Gune gris baten falta: «gaizki absolutua»

Urrunago joanez gero, ikusiko dugu esperientziaren eraikuntza mitikoak irakurleari erresistentziaren hurkoen komunitate baten barne sentitzea ahalbidetuko dion lotura afektibo bat sortzeko balio duela; haatik, mitoen eraikuntza horrek bizipena orainalditik oso urrun kokatzen du denboran, eta esparruetako benetako subjektua isilarazten duen heroi bat eraikitzen du.

Horrek dakarren ondorioa da kontzentrazio esparruak era dikotomikoan ulertzea; hau da, Buchemwaldeko preso guztien artean anaitasun begiradak nagusi diren hein berean, zaindari naziak zuzentzen dizkien begiradak hotzak eta hutsak dira, hura baita

OHARRAK

9 | Kantsultatu Wiewiorka (1998).

10 | Semprúnen eleberriko pertsonaiak hala dio: «Banekien Erresistentziaren unibertso klandestinoan sartuta zeudela. Benetakoa, hau da, nire ustez, bakarra: armada» (Semprún, 2007: 189).

11 | Estrategia hori estatu israeldarraren eta judaismoaren arteko identitate lotura eratzeke erabili izan da, esate baterako. Bestalde, tresna horrek gatazkak sortzen ditu esperientziaren egiazkotasunari dagokionez. Are gehiago, Todorov (2000) ohartarazten zuenez, gerra-kutsuko diskurtsoa babes dezake. Aurrerago, *Europartasun sentimendua* zalantzan jartzen dugunean ohartzen gara horretaz.

«gaizki absolutuaren» irudia. Eleberriak berak adierazten duenez, narrazioak Malrauxek aipatutako «Gaizki absolutua eta anaitasuna aurrez aurre jartzen direneko arimaren bidegurutzera» (Semprún, 1995: 69) ikertzen du. Ondorioz, Semprúnen eleberrian ez dago *gune grisik*¹²; ez dira kontzeptu horrek hainbestetan eztabaidatu izan diren subjektuaren boterearen arteko harremani buruzko galderak kontuan hartzen.

2.2 Tradizioari jarraitzea

Ondorioz, Semprúnek proposatzen duen esanahi berri bat ematearen prozesu horri esker, ez dago esparruen aurreko pentsamoldeari buruzko kritikarik. Alderantziz, Semprúnen proiektuak jada existitzen zenari jarripena ematen dio, humanismoan oinarritutako filosofia eta kultura aldarrikatzen duenean adierazten den bezala. Semprúnek amore ematen ez duen komunitate idealizatu bat eraikitzen duen arren, komunitate horrek hausnarketa desagerrarazten du, nahiz eta beste autore askok, hala nola, Adornok, Kertészek edo Celanek ikertu duten zein den europar pentsamolde modernoaren erantzunkizuna (baita amore eman ez zutenena ere¹³) kontzentrazio esparruen eraikuntzan. Horren ordez, kultura (eta batez ere literatura eta filosofia) goraiatu egiten dira, erreferente espiritual izatera heldu arte (era horretan, poesiak *kaddish*-aren edo azken igurtziaren lekua hartzen du).

Bestalde, nahiz eta Semprúnek orain artekoarekin jarraitu nahi duen, jarraipen hori «ezinezkoa» ez ote den galde dezakegu, Semprúnek aipatzen duen eta europartasun sentimenduaren diskurtsoa eraikiko duen tradizio filosofiko hori oso lotuta dago tradizio juduarekin (batez ere, alemana), eta giza-talde horren presentzia izugarri gutxituko da II. Mundu Gerraren ondoren. Beraz, Semprúnen asmoa, hau da, tradizio hori gaur egunera ekartzea soilik aipamena eginez, ez da nahikoa. Semprúnek berak onartzen du juduen kultura Europatik desagertzeari buruz hausnartu beharra dagoela, eta berriro tradizioan txertatzen saiatu behar garela: «nola ordezkatu, nola piztu berriro, nola barneratu berriro, erakarri berriro juduen kultura beste behin ere europar kultura aberas dezan?»

2.3 Europar Batasuna, balio humanisten ordezkari

Baina, funtsean, bizipenari esanahi berria ematea Europa historikoki eta politikoki lotuko duen erresistentziaren irudi bat eraikitzeko erabilgarria izan daitekeen arren, autoreak ez du boterearen eta subjektuaren arteko harremana aztertzen, eta, ondorioz, galarazi egiten du subjektuak jasaten duen aldaketaren (esperientzia gainditzeak eragindakoa kasu honetan) inguruko diskurtsotik

OHARRAK

12 | Kritikak termino hori erabiltzen du kontzentrazio esparruetako protagonistak mitifikatzea edo gaizkiarekin berdintzea ezinezkoa dela azaltzeko, eta Primo Leviren *Los hundidos y los salvados* eleberriaren bigarren kapitulutik hartuta dago.

13 | Benjamini eta Celanek hari buruz egin zuen kritikari buruz ari naiz hemen. Celanek kritikatzeko Benjamin intelektual engaiatua dela, baina ez zela gai izan esparruak eraikitzea posible egin zuen pentsaera nagusitu zedin kultura germaniarrak izan zuen garrantzia aztertzeko.

aldentzen den esparruei buruzko hausnarketa bat egitea, zeinek esperientzia deboran eta politikoki bereizten duen, eta, aldi berean, lekukotzari *happy end* antzeko bat ematen dio, gorago aipatu dugun memoriaren amerikartzeak eragindakoa. Esanahi berria ematearen estrategia horrek historikoki eta politikoki aurrera egin denaren ideia bultzatzen du, iraganarekin lotura politikorik ez duen orainaldi bat eraikitzen duena, eta, aldi berean, Bauman edo Levinas bezalako autoreek dioten moduan, *zibilizazioa* eta gerra oinarri dituen kontzeptu bat (aurrerapenarena, eta, hortaz, patuarena¹⁴) akuilatzen du. Gure aburuz, autoreak demokrazia babestu nahi du hura ahul lezaketen salaketa totalitarioengandik, eta horren ondorioz, *La escritura o la vida* lanak gaur egungo Europaren egoera malgutasun handiegiz epaitzen du (bai eta nazioez gaindiko proiektuaren irudi den Europar Batasuna erakunde politikoa ere), eta, era berean, EBa europartasun sentimenduarekin lotzen du (erresistentzia kontzeptua ere gehitzen du), proiektu politiko idealizatuz. Izan ere, Semprúnen saiakeretan, autoreak behin eta berriz aipatzen du demokrazia garaikideak ezkerreko ideia marxistengandik eta Europako intelektualitatearengandik babesteko beharra. Orwellen *El león y el unicornio* saiakera oinarri hartuta, Semprúnek «arrazoimen praktikoa eta demokratikoa» defendatuko duen (Semprún, 2006: 82) Europa demokratikoa bat eraiki beharra proposatzen du. Ideia hori bat dator Amèryren baieztapenekin, nork esaten duen faxistek Europako demokraziei egindako erasoek azterketa politikoaren falta islatzen dutela, eta egitura politiko europarrak ahultzen dituztela (Amèry: 2004).

Egia da EBaren oinarrian Europako herrialdeen arteko akordio bat dagoela, Semprúnek aipatutako «europartasun sentimendu» horrek proposatzen dituen irizpideen antzekoak dituen. Hala ere, sentimendu horri atxikita doazen hainbat hipotesi ekonomiko ere kontuan hartzen dira, Copenhageko irizpideek¹⁵ biltzen duten eran. Beraz, proiektu europarrak, ilustrazioan eta humanismoaren printzipioetan oinarritutako printzipio politikoak izateaz gain, (neurri handi batean) Europan sistema ekonomiko neoliberalak ezartzea ahalbidetuko duen bide politikoa ere bada. Bi irizpide horiek, politikoa eta ekonomikoa, uztartzeak eredu ekonomiko hori Europaren oinarritzko elementua dela esan nahi du, eta sistema kapitalistaren balioak «europartasun sentimenduaren» barnean sartzen ditu. Semprúnek berak, bere saiakeretan, onartu egiten du proiektu europarra kontzeptu ekonomikoen inguruan eraikita dagoela, baina, hala ere, atzean demokrazia eta humanismoa daudela dio (Semprún, 2006: 136).

Alabaina, harreman horrek bi printzio horiek bateragarriak ote diren, edo, bestela esanda, ea Europa balio humanistak bere proiektu politikoan aplikatzeko gai den (eta, batez ere, Semprúnek proposatutako amorerik ez ematearen ideia adierazteko gai den)

OHARRAK

14 | Europartasun sentimenduak «berezko teleologia bat du, zein gizadiaren ikuspuntutik uler daitekeen gizadiaren aro berri baten eboluzioaren agerpena eta hasiera gisa, momentu horretatik aurrera izaera eta historia aske eraikiz baino existituko ez den aro berria, arazoimenean oinarrituz ekintza amaiezinen zerrenda gauzatzeko» (Husserl, 1990: 328).

15 | Hiru irizpide daude Europako egitura komunen kide izatera heltzeko: irizpide politikoa (demokrazia bermatuko duten erakundeak egotea, zuzenbide Estatua, giza eskubideak errespetatzea, eta gutxiengoak errespetatzea eta babestea), irizpide ekonomikoa (funtzionatzen duen merkatuen ekonomia bat egotea eta Batasuneko lehiari eta merkatuen indarrei aurre egiteko ahalmena izatea), eta talde ondarearen irizpidea (Batasuneko kide izateak dakartzen betebeharrak onartzea, eta, batez ere, batasun politikoaren, ekonomikoaren eta monetaren batasunaren helburuak onartzea).

aztertzea behartzen gaitu. Helburua ez da demokraziaren ideiar bere balioa kentzea Europako erregimen totalitarioekin lotuz, baizik eta botere hori nola aplikatzen den aztertzea, eta, behar izanez gero, salatzea, bai eta Europako demokrazia neoliberaleretan ustelkeria politikoaren forma berriak aurkitzea ere.

2.4. «Europartasun sentimenduaren» kontzeptua

Bestalde, ezinbestekoa iruditzen zaigu Husserlek proposatutako «europartasun sentimendua» aztertzea, gero Semprúnek erabiliko zuena bere proiektu politikoa ideologikoki gorpuzteko. Husserlek dioen legez,

Hay en Europa algo singular, único, respecto de lo que todos los otros grupos humanos son también sensibles en cuanto algo que, independientemente de toda consideración de utilidad, se convierte para ellos, por grande que sea su voluntad indomable de autoconservación espiritual, en una incitación a europeizarse, en tanto que por nuestra parte, si tenemos una comprensión cabal de nosotros mismos, nunca optaremos, por ejemplo, por indianizarnos (Husserl, 1990: 329).

Baieztapen horrek ez du soilik errealitatea ulertzeko era «eurozentrikoa» islatzen (zein, Hardtek eta Negrik azaltzen dutenez, iraultzaren kontrakoa den, «eurozentrismoa, aurkitu berri zen gizakien arteko balizko berdintasunari emandako erantzun gisa jaio zen; kontrairaultza izan zen mundu mailan» (2005: 96)), bestearekiko harremanetan ierarkia etiko edo espiritual absolutua ere islatzen du, zeinek esparruetan gertatutako fenomenoak larriagotu ditzakeen, zibilizatua / basatia irizpide dikonomikoa babesten baititu (Bauman, 2006) –eta Arendt (1982) eta antzeko autoreek diotenez, aurretiko Imperialismoa ere larriagotu dezake-. Izan ere, gainerakoak kanpoan uzten dituen oinarrien ganean eraikita dagoen Europaren kontzeptu hori (Husserlen ustez, «ez eskimalek, ez urteroko azoketan haien dendetan biltzen diren indiarrek ez eta European zehar etengabe alde batetik bestera dabiltzan ijitoek» ere ez dute sentimendu hori partekatzen), kulturaren eta pentsaeraren erdigunea dena eta patu historiko bat duena, sistema ideologiko espantsionista eta inperialistaren jarraipena baino ez da. Zalantzarik gabe, *La escritura o la vida* lanak bestearekiko proposatzen duen harremana ez dator bat kontzeptu inperialistarekin; egiaz, Semprúnek berak, idatzi dituen saiakeretan, desberdina dena eleaniztasunean bilduko duen Europa bat eraikitzearen beharrari buruz hitz egiten du, eta tradizio arabiarra edo hebrearra barnean hartzeari eta Europako ekialdeko herrialdeak kontuan hartzeari garrantzia ematen dio (Semprún, 2006: 137).

Hala, Semprúnek Husserlen proposamena berreraiki egiten du, gainditzeko asmoz. Dena den, iruditzen zaigu badagoela zalantzan jartzea ea Europa sinbolikoki eta ideologikoki (bai eta politikoki eta

ekonomiko, Europar Batasunaren bitartez) eraikitzea zer puntutaraino hurbiltzen edo urruntzen den jarrera horretatik, eta ea posible den printzipio humanista horiek tokian tokikoaz haraindi, unibertsaltasuna biltzen duen demokrazia bat eraikitzeke erabiltzea. Aldi berean, Huysenek dioen moduan, «garrantzitsua da gogoratzea memoriari buruzko diskurtsoek zenbait erregistrotan globalak diruditen arren, funtsean nazio edo estatu baten historiari loturik jarraitzen dutela» (Huysen, 2002: 21). Beraz, iruditzen zaigu erresistentziaren ideiak eta ideia eurozentrikoak ez duela gaur egungo egoera, edo, zehatzago esateko, Europar Batasunaren proiektu politikoa zorrotasun nahikoz kritikatzeko, eta jarrera kritikoa hartzea saihesten du.

2.5 Hedadura politiko eta metodologikoa

Bide horretan, nahiz eta autorearen lanean aurki dezakegun erresistentziaren ideiarekin, eta erresistentzia hori komunitate baten inguruan eraikitzearen proposamenarekin bat gatozen, Semprúnen proposamenak politika mailan izan dezakeen eragina erlatiboki eraginkorra dela uste dugu: *La escritura o la vida* eleberrian, totalitarismo pean bizitako esperientziari esanahi berria ematen zaio, eta Europak politikoki eta ontologikoki aurrera egiteko *beharrezko* elementu bat da. Ondorioz, ez ditu zalantzan jartzen esparruetako bizipenari buruzko hainbat elementu gatazkatsu, hala nola, gainerakoak basatitzat hartu eta baztertzen dituen pentsamolde eurozentrikoa, edo patu nazionalaren (kasu honetan, nazioez gaindiko patuaren) ideia; eta, aldi beran, ez du gaur egungo Europa eta haren egitura politikoa behar bezain gogor epaitzen. Beraz, Semprúnen ikuspuntu baikorrak (amaiera zoriontsua bihurtzen du) *orainalditik urrun dagoen* memoria bat eraikitzen jarraitzea eragiten du.

Dena dela, proposamen politiko hori aztertzeak posible egiten du europartasun sentimendua azterketarako elementu gisa erabiltzea, sentimendu hori garrantzitsua baita europar komunitatearen eraikuntza justifikatzeko, eta proposatzen duen teoriak eztabaida piztu baitezake. Hala, elementu horren egiturak kontraesan eta paradoxa guzti horiek bildu beharko ditu bere baitan. Bestalde, Semprúnen proposamen politikoari buruz hausnartzeak pentsarazten digu ea benetan posible den esperientzia gaur egunera ekartzea, baina hala subjektu garaikidea nola Europako demokraziak harekin identifikatu gabe, eta, beraz, zalantzan jarri gabe; eta, aldi berean, boterearen eta norbanakoaren arteko harremanak aztertzea, momentu historikoen arteko desberdintasun sakonak ahaztu gabe.

Bibliografía

- AMÉRY, J. (2004): *Más allá de la culpa y la expiación*, Valentzia: Pre-textos.
- ARENDT, H. (1982): *Los orígenes del totalitarismo 2. Imperialismo*, Madril: Alianza Universal.
- BAUMAN, Z. (2006): *Modernidad y Holocausto*, Madril: Sequitur.
- BENJAMIN, W. (2007): *Obras*, Madril: Adaba, vol. II.
- DUVIGNAUD, J. (2004): «Prefacio» en Halbwachs, M., *La memoria colectiva*, Zaragoza: Pressas Universitarias de Zaragoza, 7-15.
- HALBWACHS, M. (2004): *La memoria colectiva*, Zaragoza: Pressas Universitarias de Zaragoza.
- HARDT, M. i NEGRI, A. (2005): *Imperio*, Bartzelona: Paidós.
- HUSSERL, E. (1990): *La crisis de las ciencias europeas y la fenomenología trascendental*, Bartzelona: Crítica.
- HUYSEN, A. (2002): *En busca del futuro perdido: cultura y memoria en tiempos de globalización*, Mexico: Fondo de Cultura Económica .
- LOZANO AGUILAR, A. (2001): «De la Shoah al Holocausto. Spielberg, intérprete del exterminio de los judíos europeos», en Sánchez-Biosca, V. y Benet, V. (eds.), *Decir, contar, pensar la guerra*, Valentzia: Universitat de Valencia Ediciones, 54-86.
- LOZANO AGUILAR, A. (2007): «De Ohrdruf a Auschwitz. Un imaginario para el mal», *Archivos*, 55, 58-78.
- PERIS, J. (2005): *La imposible voz. Memoria y representación de los campos de concentración en Chile: la posición del testigo*, Santiago: Cuarto Propio.
- PLA, Xavier (2004): «Jorge Semprún. La verdad literaria y la densidad transparente», *Quimera*, 238-239, 53-56.
- SÁNCHEZ-BIOSCA, V. (2001): «Representar lo irrepresentable. De los abusos de la retórica», en Sánchez-Biosca, V. y Benet, V. (eds.), *Decir, contar, pensar la guerra*, Valentzia: Universitat de Valencia Ediciones, 53-70.
- SEMPRÚN, J. (1994): *Una tumba en las nubes. Discurso pronunciado con ocasión del Premio de la Paz*, Bartzelona: Tusquets Editores.
- SEMPRÚN, J. (2006): *Pensar en Europa*, Bartzelona: Tusquets.
- SEMPRÚN, J. (2007): *La escritura o la vida*, Barcelona: Tusquets Editores.
- SEMILLA-DURÁN, M. A. (2004): «Vivir, resistir, escribir. Entre testimonio y literatura», *Quimera*, 238-239, 36-43.
- SEMILLA-DURÁN, M. A. (2005): *Le masque et le masqué: Jorge Semprún et les abîmes de la memoire*, Toulouse: Presses Universitaires du Mirall.
- SOTO FERNÁNDEZ, L. (1996): *La Autobiografía ficticia en Miguel de Unamuno*, Carmen Martín Gaité y Jorge Semprún, Madrid: Pliegos.
- TODOROV, T. (2000): *Los abusos de la memoria*, Bartzelona: Paidós Asterisco.
- WIEVIORKA, A. (1998): *L'ère du témoin*, Paris: Hachette littératures.